


## 2019ko abenduan industri prezioek %0,3 egin dute gora aurreko hilaren aldean Euskal AEn

**Urte osoan, Industri prezioen indizea % 1,7 hazi da, 2018ko abenduarekin alderatuta**

Euskal AEnko industri prezioak % 0,3 igo ziren 2019ko abenduan aurreko hilaren aldean, EUSTATEk landutako datuen arabera. Datu horiekin, abenduko urte arteko tasa, azken hamabi hilabeteetako industri prezioen aldakuntza jasotzen duena, % 1,7tan kokatu zen.

### Euskal AEnko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa sektorial zehatzagoak agerian uzten du ezen, 2019ko abenduan, aurreko hilarekin konparatuta prezioetan hazkunderik handienak izan dituzten adarrak honako hauek izan direla: *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 3,3ko igoera) eta *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 1,5eko igoera). Aitzitik, prezioen jaitsiera handienak honako sektore hauetan izan dira: *Ura* (% 2,7) eta *Produktu farmazeutikoak eta Industria kimikoa* (% 0,4 behera biek).

Xede ekonomikoaren araberrako ondasunen sailkapenari jarraituz, aurreko hilabetearekin alderatuta, *Energiaren* prezioak % 1,1 igo dira, *Ekipo-ondasunak* % 0,1 eta *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 0,6. Azken horien barruan, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioak % 0,2 igo dira, eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak, berriz, % 0,7. *Bitarteko Ondasunak* % 0,1 jaitsi dira.

Urte arteko aldian, 2019ko abendua 2018koaren gainean, prezioen hazkunderik handienak honako adar hauetan izan dira: *Kokeriak eta petrolioaren finntzea* (% 11,1 gora), *Erauzketa-industriak* (% 3,4) eta *Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak* (% 3,0). Alderantziz, behera egin dute *Produktu farmazeutikoen* (% 1,4 behera), *Industria kimikoaren* (% 1,2) eta *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* sektorearen (% 0,8) prezioek.

Urte arteko aldian ondasun-talde handien prezioen aldakuntza positiboa izan da *Energiarentzat*, % 7,1 hazi baita, *Ekipo-ondasunentzat*, % 1,6 gora, eta *Kontsumo-ondasunentzat*, % 1,1 igo direnak. Azken horien artean, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioak % 2,0 igo dira, eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrenak* % 1,0. *Bitarteko Ondasunen* prezioak, aldiz, % 0,2 jaitsi dira.

## Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2019ko Abendua

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %		
		2019abe / 2019aza	2019abe / 2018abe	2019abe / 2018abe
<b>INDIZE OROKORRA</b>	<b>104,0</b>	<b>0,3</b>	<b>1,7</b>	<b>1,7</b>
<b>Sektore-banaketa</b>				
Erauzketa industriak	105,6	0,7	3,4	3,4
Manufaktura-industria	105,1	0,2	1,7	1,7
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	97,4	0,7	1,3	1,3
Ura	104,5	-2,7	0,0	0,0
<b>Industria-sektore handien arabera</b>				
Kontsumo-ondasunak	104,5	0,6	1,1	1,1
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	103,4	0,2	2,0	2,0
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	104,7	0,7	1,0	1,0
Ekipo-ondasunak	107,3	0,1	1,6	1,6
Bitarteko ondasunak	102,4	-0,1	-0,2	-0,2
Energia	106,4	1,1	7,1	7,1

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

**Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea**

### Informazio gehiagorako:

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62*